

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

Izarrako poligono 2ko lursaila 526an egikaritze-unitatearen lurzatiak berriko proiektuari hasierako onarpena ematea

2019ko urriaren 22ean egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak, Izarra herriko poligono 2ko partzela 526an egikaritze-unitatearen lurzatiak berriko proiektuari hasierako onarpena ematea ebatzi zuen. Proiektu hori Luis Angel Bocos Laconchak sustatu eta Iñaki Grisaleña Romero ingeniari zibilak idatzitakoa da eta Euskadiko ingeniari zibilen Elkargo ofizialaren 2018ko urtarrilaren 15ko ikus-oneritzia du. Hori dela-eta, Hirigintza Kudeatzeko Arautegia onartzen duen abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuak, abuztuaren 25ekoak, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak xedatutakoari jarraituz, aipatutako lurzatiak berriko proiektua jendaurrean jarriko da Udaletxeko bulegoetan, hogeitun egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, proiektu horrek eragiten diola uste duen orok bere eskubideak aldezteko egoki deritzen alegazioak aurkez ditzake.

Izarran, 2019ko urriaren 22an

Alkatea

XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA